



LABURPENA DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA E2030DSS

1. - SARRERA
- 2.- HAUSNARKETARAKO PUNTUAK. DIAGNOSTIKO
KUANTITATIBOAREN LABURPENA
- 3.- MUNDU-MAILAKO JOERA SOZIOEKONOMIKOEN ANALISIA
- 4.- AMIA ANALISIA

I. – SARRERA

Honako dokumentu honek **Donostia/San Sebastián 2030 Estrategiaren** egite-prozesuaren lehen fasearen emaitzak jasotzen ditu, hiriko Estrategia Bulegoak bultzatua. Lehen fase honek ondorengo elementu metodologiko eta analitikoak ezartzea barneratu du:

- **Diagnosi Kualitatibo** bat egitea (honen laburpena hemen jasotzen da) eta hiriaren egoera eta bilakaeraren ikuspegi zabal bat eskaintzen du, bere errealitate ekonomiko, sozial, ingurunekoak, etab. osatzen duten alderdiei dagokienez. Pertsonak eta hiria kontuan hartzen dira, E2020DSS Estrategiaren eguneraketan jasotako ikuspegi estrategikoari erreparatuta:
 - Hiriaren testuingurua: pertsonak, biztanleria eta bere ezaugarriak, prestakuntza eta balioak, gizarte-barneratzea, etab.
 - Jarduera ekonomikoa, garapen jasangarriarentzako baldintza bat: hiriaren aberastasun eta enplegu iturriak, sektore finkatuak eta suspertzen ari direnak, etab.
 - Zientzia, ezagutza aurreratua eta berrikuntza: tokiko ekosistema, ingurugiro erraztailea, azpiegiturak, espezializazio adimentsua.
 - Hiriko bizi-kalitatea: hirigintza eta etxebizitza, azpiegituren zuzkidura, etab.
 - Ingurugiroa eta jasangarritasuna: ingurune ibilbidea, Klima 2050 Estrategia, isurketak, baliabideen kudeaketa, etab.
 - Erlazionatutako gizarte bat: mugikortasuna eta komunikazioa, tokikoa-metropolitanoa, lurraldekoa eta globala; inguruarekin erlazioa eta nazioartekotzea.
- **Joera Sozioekonomikoen Analisi** Txosten baten egitea hiriraren etorkizuna baldintzatuko duena eta, izan ere, eragiten ari dena jada egungo errealitatean, eta zera barneratzen du:
 - “Mega-joera” orokor nagusiak aldaketa demografiko, aldaketa teknologiko, klima aldaketa, globalizazioa eta aldaketa geopolitikoei dagokienez.
 - Joera sektorialen multzo bat gizartearen eta honen balioetan aldaketak eragiten dituztenak; aldaketa ekonomiko eta enpresarialak, aldaketak mugikortasun eta garraioan eta aldaketak gobernantza publiko eta gidaritza formetan.
- Txosten hauek aurkeztuak, eztabaidatuak eta onetsiak izan dira **Batzar Sozialaren Plan Estrategikorentzako Komisioaren** bilera desberdinetan. Emaitza modura, **AMIA matrize** bat egin da, non laburbiltzen diren etorkizunean hiriak aurre egin beharko dituen Ahultasun eta Mehatxu nagusiak, eta baita euskarri bezala erabili beharreko Indar-guneak eta aprobeztatutako beharreko Aukerak 2030 Estrategiaren diseinuan.

2.- HAUSNARKETARAKO PUNTUAK. DSS DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN LABURPENA

I. HIRIAREN ESPARRUA: PERTSONAK

- Donostia Europako hiri ertain bat da eta biztanleria egonkorra du, neurrizko dinamismo demografikoarekin. Bizi-itxaropen handia du, baina handituz doakio.
- Pixkanaka biztanleria zahartzen eta gainzahartzen ari da, batez ere hiriko toki jakin batzuetako biztanleak (Erdialdekoak eta Grosekoak; eta Erdialdekoak, Grosekoak eta Zorroaga-Miramongoak, hurrenez hurren) eta emakumeak.
- Donostiako ugalkortasun- eta jaiotza-tasak Europako txikienetakoak dira, eta emakumeek adinean aurrerago izaten dituzte umeak.
- Kultur aniztasunari dagokionez, gero eta etorkin gehiago daude, nahiz eta oraindik Europako hirietako mailetara ez iritsi eta auzoka desberdin banatuta egon. Etorkinak gazte samarrak dira, eta nagusiki EBtik kanpokoak; hain zuzen ere, Latinoamerikakoak eta Afrikako iparraldekoak.
- Donostiarrek prestakuntza-maila ona dute eta eskola garaia baino lehen uzten dutenen tasa neurrizkoa da erreferentziako lurraldeetakoekin alderatuta. Bestalde, unibertsitateaz kanpoko euskarazko prestakuntzak aurrera egin du; eta lanbide-heziketak, gora.
- Pixkanaka gero eta jende gehiagok daki euskaraz, baina ez dirudi gehiago erabiltzen denik kalean, ez baitu aurrera egiten.
- Halaber, donostiarrak oso pozik daude hiriko bizi-kalitatearekin (9,13 puntu 10etik), eta kezka-iturri nagusiak lana eta etxebizitza dira.
- Gizarte tolerantetara samarra da etorkinekin, nahiz eta zenbait pertzepzio intolerante ikusten diren.
- Herritarrek neurritz hartzen dute parte hiriaren kudeaketan, eta, oro har, donostiarrak pozik daude parte hartzeko bideekin, edo ez dituzte ezagutzen.
- Donostiako batez besteko familia-errenta Estatuko altuenetako bat da. Hala ere, aberastasuna ez da guztiengana berdinean iristen (alde nabarmenak daude generoaren arabera) eta, gainera, desberdintasun handiak ikus daitezke auzoen artean errentaren banaketari dagokionez.
- Kalkuluen arabera, pobrezia-arriskuak donostiarren % 4,5i eragiten die gutxienez, eta diru-sarrera gutxi izateko egoerak, berriz, % 10,7ri. Hala ere, pobrezia- eta bazterkeria-egoeren kopurua erreferentziako lurraldeetako baino txikiagoa da Donostian.
- Baliabide ekonomikoaren banaketak eragina du pobrezia-mailan, eta pobrezian murgiltzeko arrisku handieneko taldeak atzerritarrek, haurrak, guraso bakarrek

etxeak (emakumeak edo 45 urtetik beherako pertsonak buru dituztenak) eta gutxieneko diru-sarrerak dituzten adinekoak dira.

- Desberdintasun sozioekonomikoak daude donostiarren osasunean, eta aldeak daude lurraldean bizi-itxaropenari dagokionez. Gipuzkoako Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunaren Inkestaren arabera, 33.600 donostiar inguruk uste dute osasun txarra edo oso txarra dutela (bitik ia batek 75 urte edo gehiago ditu). Halaber, baliteke bost donostiarretik batek herostura- edo depresio-sintomak izatea. Alkoholarekin eta drogekin arazoak dituztenen kopurua nekez jakin daiteke.
- Etxebizitzarekin erlazionatutako arazoek gizarte- eta lurralde-kohesioan eragina dute eta gizarte-bazterkeriako faktore garrantzitsu bat dira.
- Kontuan izan behar da gizarte-transferentziek eraginkortasun handia dutela pobrezia larria murrizten eta gizarte-zerbitzuetan gero eta eskaera gehiago aurkezten direla eta gero eta presio handiagoa egiten dela.
- Hiriaren ekialdean daude langabezia-tasa handienak, baita iraupen luzeko langabeen eta atzeritar langabeen tasa handienak ere.
- Lan-merkatua prekarizatu egin denez (soldata baxuak, kontratazio modu berriak, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak...), txikitu egin da enpleguaren gizarteratze-ahalmena. Aldi berean, langabeziak eragin handiagoa du talde batzuetan, eta, dirudienez, talde horietan zenbait faktore biltzen dira (prestakuntza, adina eta generoa).
- Donostiako langabezia-tasak Euskal Herriko eta Gipuzkoako batezbestekoaren azpitik daude, eta erreferentziako hiri eta lurraldeetako balioetatik urrun.

II- JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN

IRAUNKORRERAKO BALDINTZA

- Donostiako BPGd batez ere zerbitzuen sektorean oinarritzen da, eta badirudi hazten ari dela, krisi ekonomikoaren efektuen ondoren berreskuratuz. Per capita BPGd euskal hiriburuetakoa altuenetakoa da eta estatuko altuenetakoa. BEGd gainerako euskal hiriburuetakoa baino apur bat baxuagoa da, eta eskualdeko kopuru osoaren %62a hartzen du.
- Donostiako enpresa-ehuna anitza da, eta 10 enpresatitik 9 eteak eta mikro-eteak dira.
- Oraindik ere krisiaren inpaktua nabari da saltokien galeran. Enpresa-ehunak bilakaera desberdina izan du, eta jarduera komertzialean pisua nolabait galdu egin du. Bestalde, Donostia gainerako euskal hiriburuak baino dinamikoagoa da establezimendu berriak sortzerakoan, nahiz eta ekintzailtza estatuko batez bestekoa baino baxuagoa izan.
- Erdigunean aurkitzen da jarduera gehiena (1.000 biztanleko establezimenduen dentsitatea neurtuta) eta urrunago daude Gros eta Amara Berri.

- Zerbitzuen hiria da (establezimenduen %88a zerbitzuen sektorekoa da), eta Erdigunea da auzorik tertziarioena (establezimenduei dagokienean), Amara Berri eta Grosekin batera; Martutene auzorik industrialena da, eta eraikuntzak indar handiagoa du Altzan, Loiolan eta Martutenen; Igeldo eta Zubieta, aldiz, landa-eremukoak gehiago dira.
- Donostiako enpleguaren pisua zerbitzuen sektorean ere aurkitzen da (herena Administrazio Publikoan), eta hor kontuan izan behar da Donostiak Gipuzkoako lurraldeko hiriburu gisa duen papera.
- Krisiaren inpaktuaren ondoren, 2014. urtea inflexioaren urtea da enplegua eta kontratazioarentzat, baina azpimarratzekoak dira enpleguak hirian duen banaketa ezberdina eta lan-merkatuan egiten diren galderak.
- Gastronomía hiriaren arrakasta zutabeetariko bat izan da azken urteetan. Etorkizunera begira estrategia bat sortzea beharrezkoa da, lortutako kokapena aprobetxatuaz, hirian sektorearen erronkak jorratzeko.
- Bisitari/turisten eta ostatu-gauen igoera gertatu da (mila biztanleko plazen ratio altuekin); halaber, bisitari atzerritarren igoera ere esanguratsua da. Jarduera turistikoa pixkanaka gehitzen ari denez, turismo-eredu iraunkorra adostu behar da, herritarrekin eta ingurune natural eta hiri-ingurunearekin bizikidetzat egokia izan dezan, hiriaren bizi-kalitateari eta nortasun propioari eustearekin batera.
- Jarduera kulturalaren barruan, jaialdiek erakartzeko gaitasuna izaten jarraitzen dute, krisi-garaian gertatutako beherakadaren ondoren izandako igoera eta gero; era horretan, azken urteetan, nolabaiteko egonkortasuna izaten jarraitzen du.
- Donostiako hiru establezimendutatik bat komertziala da, eta gogoratu behar da jarduera-eremu horrek, merkataritzak, krisi ekonomikoaren inpaktua izugarri jasan duela.
- Bestalde, sormen-industriek hiriko establezimenduen %18a osatzen dute, eta Donostiako lau establezimendutatik batek enpresentzako zerbitzu aurreratuak eskaintzen ditu. Ezagutzako sektore intentsiboek jardueren %42a hartzen dute, eta I+G enpresek enpresei zuzendutako zerbitzu aurreratuak %2,3a.

III- HEZKUNTZA-SISTEMA, EZAGUTZA AURRERATUA ETA BERRIKUNTZA

- *Regional Innovation Scoreboard* 2017ren azken emaitzen arabera (Europako Berrikuntzaren 2017ko Adierazleen Panela, Europako Batzordearena), Euskal Autonomia Erkidegoa berrikuntza-maila handiko eskualdeen multzoan kokatzen da (talde horren beheko mailan), eta kalifikazio horri eusten jarraitzen du urteetan zehar. EAerako dimentsio aldekoenak, panel hori egiteko aztertutako aldagai guztietatik hartuta, giza baliabideak, ikerketa-sistema erakargarria eta berrikuntzaren aldeko ingurunea dira.
- I+G+b inbertsioaren hazkundea izugarria izan da hirian eta lurraldean 2001etik 2012ra bitarte, orduan 2016ra arte luzatuko den atzerakada gertatzeagatik; hortik aurrera, berriro ere hazkunderaren bidea abian jarriko da. Gipuzkoa EAeko lurralde burua da I+G+b inbertsioan, 2001/2016 denboraldian, oro har zein enpresei dagokienean.
- Donostian I+G arloan lanean ari diren langileen portzentajea eta ikertzaileen kopurua gainerako euskal hiriburuetakoa baino handiagoa da.
- Gipuzkoan, unibertsitate-ikasleen kopuruak (20.028 bat pertsona 2014/2015 ikasturtean, %49,2 gizonezkoak eta %50,8 emakumezkoak) apur bat behera egin du.
- Parke Teknologikoak ia bikoiztu egin du enpresa-kopurua hamar urtetan. Baina esparru berean hazkunderako arazoak aurkeztu dira datozen hamarkadari begira, okupazio-maila eta etorkizuneko handitze-aukerak direla-eta.
- Donostiak eta inguruneak azpiegitura eta ekimen garrantzitsuak ditu enpresak sortzeko (bereziki oinarri teknologikokoak) eta talentua erakartzeko.
- Nahiz eta Biozientziek eta Nanozientziek lurraldean ekimenak izan, egungo egoera sakon aztertu behar da eta sektore horiek bultzatzeko aukera ematen duten estrategiak indartu, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta.
- Ildo berean, aipatzekoak dira aspaldiko urteetan egiten ari diren espezializazio-ekimenak mikro-klusterren bitartez; duela gutxi Modaren sektorea sartu da.
- Bestalde, nabarmentzekoa da aurrerapen teknologikoen eta berrikuntzak lurraldean duten potentziala; horren adibide gisa, "Smart Cities" eremuan aurreikusitako garapenak ditugu, Txomin Enea auzo berritua bezalako espazioetan, hiri-inguruneak berriz diseinatzea bultzatuaz, eraginkortasun eta bizi-kalitate handiagoa izaten laguntzen duten teknologiek.

IV- HIRIKO BIZI KALITATEA

- Hirian, eraikitako eremuaren eta erabilera publikoko eremuaren arteko oreka (hiriko trinkotasun-maila zuzendua batez beste), desberdina da: batetik, trinkotasun-maila handiegia dago auzo batzuetan (Altzan edo Larratxon, adibidez), eta, beste batzuetan, aldiz, lortu nahiko litzatekeen ratioaren oso azpitik daude. Era berean, pertsona/lurralde erlazioan (masa kritikoa) desberdintasun handia dago dentsitateari nahiz banaketari dagokienez: etxebizitza bakoitzean 2,4 pertsona batez beste, eta auzoen artean desberdintasun handia, hiriguneko auzoetan eta ekialdean bizitegi gehiago alegia.
- Donostia biztanle bakoitzeko batez besteko berdegune-ratioen oso gaintetik dago, nahiz eta Gros eta Amara auzoek huts egiten duten aspektu horretan (ezarritako ratio optimoen arabera).
- Hiriaren inguruneetan hiri- eta bizitegi-garapeneko fase desberdinak ikus daitezke. Hiriguneko areak bereziki aipagarriak dira ingurumen-, arkitektura- eta hiri-kalitateari dagokionez, eta jarduera finantzario eta komertzialaren zona garrantzitsu eta enblematikoenak dira.
- Orokorrean, hiritarren asebetetze-maila honakoa da: bizi-kalitatearekin 9,2koa (10etik), hiriko bizimoduarekin 8,8koa, eta beren auzoko bizimoduarekin 8,4koa.
- Donostiako etxebizitza-parkeak batez beste 47,6 urteko antzintasuna du eta hirian hutsik dauden etxebizitzak ehuneko % 6,26koa da (2011n). Aztertu diren hirietatik Gasteizek bakarrik du ehuneko txikiagoa (% 5,08).
- Bizitegi-ingurunea alderdi garrantzitsuenetako bat da hiriaren garapenean eta hiri-bizitzaren kalitatean; izan ere, etxebizitzak pertsonen bizi-kalitatean eragiteaz gainera gizarte-bazterketaren faktore bat izan daiteke. Ildo horretatik, etxebizitzara sarrera etengabe errepikatzen den kezka eta eskaera bat da, donostiarren artean, neurri handi batean baldintzatuta dagoelako etxebizitzaren prezio altuagatik, are okerragoa, orain, egoera ekonomiko eta finantzarioagatik. Donostiarren % 7,3ak (5.240 familia) ohiko bizitokia aldatzeko beharra adierazi du eta % 10,7ak ohiko etxebizitza birgaitzekoa. Aldi berean, 18 eta 44 urte bitarteko 8.414 pertsonak (biztanleriaren % 14ak) lehenengo etxebizitzara sartzeko beharra adierazi dute.
- Hiritarren pertzepzio-galdetegietan okerren baloratzen den aspektua etxebizitza arazoizko prezioan topatzeko zailtasuna da, eta, antza, horixe da faktoreetako bat etxebizitza bila dabilzan biztanleak (emantzipatu nahi duten gazteak, adibidez) prezio merkeagoak dituzten aldameneko udalerrietara joateko.
- Arazo garrantzitsuenen artean, irisgarritasunarekin batera aintzat hartu behar da etxebizitzak pertsonen baldintza eta eskaeretara egokitzeko beharra haien bizi-zikloan (esaterako, etxebizitza “handiegietan” bakarrik bizi diren adinekoak, hainbatetan ahultasunezko eta jasagarritasun gutxiko baldintzetan).

- Bestalde, Donostian erroldatutako biztanleen etxebizitza babesturako eskaerari dagokionez, antzeman da erosketarako eskaerak gutxitu egin direla eta alokairukoak, aldiz, ugartu.
- Balioetsi da hiriko turismo-erabilerako etxebizitzaren ehunekoak % 1,39 dela batez beste. Hirigunean (% 4,80), Grosen (%2,89), Antiguan (% 1,51) eta Igeldon (1,02%), beste auzoetan baino askoz ere proportzio handiagoan.
- Donostiako hornikuntzetara eta zuzkiduretara sarbiderako ratio orokorrak parametro egokien artean daude, auzo batzuetako zona jakinetan desberdintasun garrantzitsuak antzematen badira ere. Aipatu behar da denboran zehar ekipamendu sozialak eta estaldura sanitarioak (600 metrora) edo zerbitzu sozialak (300 metrora) igo egin direla, arrazoizko zifretan eta modu iraunkorrean, nahiz eta hobetu daitezkeen oraindik.
- Donostia hiri segurutzat hartzen da, eta delitu-tasa igo bada ere erreferentziatzat hartutako hirien ratioaren azpitik mantentzen da. Aipatu behar da segurtasuna modu desberdinean hautematen dela generoaren arabera, izan ere, emakumeek segurtasunik eza handiagoa sentitzen dute. Bestalde, gune kritikoen mapak hiriko toki problematikoenak biltzen ditu, Udaleko sailarteko lantaldeak definitutako irizpideen eta hiritarrek segurtasunari buruz duten pertzepzioaren arabera.

V- INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA

- Ingurumen-iraunkortasunaren aldeko konpromisoan ibilbide luzea eginaz, Europako Hiriak Iraunkortasunerantz Aalborg-eko Gutuna 1998an sinatu zenetik hasi eta ingurumen-iraunkortasuna kudeatzeko instrumentuak garatuaz, aldaketa klimatikoaren aurreko ibilbide-orriak funtsezko dokumentuak ditu: 2017an, Aldaketa Klimatikoaren aurreko Egokitzapen Plana onartu zen eta 2018an Klima 2050 Estrategia.
- Klima aldaketaren ondorio diren arriskuak eta kalteberatasunak hainbat arlotakoak dira: olatuek eta itsas mailaren igoerak ingurune eraikiaren gainean duen inpaktua; ibai eta euri uholdeen arriskua eta ingurune eraikiaren eta saneamendu sareen gainean duten inpaktua; bero boladen eta tenperatura igoeraren arriskua eta gizakien osasunaren eta biodibertsitatearen gainean duten inpaktua.
- Airearen kalitatea ona edo oso ona dela baloratu da neurketa egunen % 95,8an.
- Berotegi-efektuko-GEI gasen isurpenak (per capita) Donostian murrizten ari dira (- Δ %22,7 2007-2015 urte artean); eta datozen urteetarako karbono igorpenak murrizteko konpromisoak (2030ean % 40 gutxiago) beteko badira, bereiziki esku hartu beharko da mugikortasuna gisako esparruetan edo energia efizientzia handiagoa lortu beharko da (eraikinak energiaren arloan birgaitzearen ondorioz, esate baterako).Mugikortasunak igorpenen % 40,2

sortzen ditu, ia industria jardueraren (% 28,2) eta zerbitzu jardueraren (% 13,5) batura bezainbeste; bizitegi jarduerak igorpenen % 12,6 sortzen ditu eta hondakinei dagokie gainerako % 5,2.

- Baliabideen arrazoizko erabilerari dagokionean, badirudi beharrezkoa dela herritarrengan baliabideak modu arrazionalen erabiltzeko, energia aurrezteko eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko nahiz hondakinak murrizteko, birziklatzeko eta horien kudeaketa hobetzeko kontzientziario eta sustapen jarduerak egitea. Ildo horretan, azken 15 urteetan, uraren kontsumo osoa murriztu egin da, batez ere hornidura-sarean egin diren hobekuntzengatik (ihesak kentzea, hoditeriak berritzea,...), hondakin gutxiago sortu dira (oszilazioak egon arren), eta birziklatze-kotak igo dira; hala ere, asko hobetu daiteke, gaikako bilketa gehituz eta zabortegira doan kopurua murriztuz.
- Kontsumo energetiko orokorra bere horretan mantentzen da (krisiaren inpaktuak eragindako oszilazioekin), eta azken 15 urteetan gehitu ere egin da, energia berriztagarrien sorrera pixkanaka aurrera doan bitartean; Donostiarako kalkulaturako energiaren azken kontsumoko energia berriztagarrien kuota (%7 2014an) Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino apur bat baxuagoa da, eta Estatuko eta Europako batez bestekotik urrun aurkitzen da (%15,4 eta %15).

VI-GIZARTE ERLAZIONATUA: MUGIKORTASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

- Atlantikoa hiriaren ardatzeko kokaleku estrategikoa azpigaratuta dago
- Portu jardueraren beherakada eta, hein txikiagoan, aire trafikoarena. Portuaren bilakaera kezka iturri da, eta aireportua egoera ezegonkorrean dago, segurtasun araudiaren ondoriozko pistaren murrizketarekin areagotu dena. Beste aireportu plataformek (Loiu edo Biarritz) bilakaera positiboa duten arren, Foronda eta Iruñeko aireportuek jarduera txikia dute. Autobus sistema bidezko Loiu aireporturako konexioak onak dira, ez ordea Biarritzeko aireportuarekiko konexioa (konexio hori hobetzeko proiektuak daude).
- Trenbide bidezko mugikortasuna bete-betean sartuta dago transformazio prozesuan, mugikortasunean inpaktu handia izango duten bi ekimenen bidez. Topoaren/metroaren Lugaritz/Amara konexioa eta Ondarretako eta Kontxako geltoki berriak, eta Abiadura Handiko Trena iristea eta Atotxako geltokiaren eraldaketa, eta Hendaiara arteko hirugarren hariaren eraikuntza horrek aukera emango du Paris/Hendaia ibilbidea egiten duten konboiek Paris/Donostia ibilbidea egiteko.
- Donostiarako joan-etorri gehienek Gipuzkoa dute abiapuntu eta bitik batek Donostialdea. Bostetik hiru kotxez egiten dira.
- Hirian, barneko joan-etorri gehienak (% 50) oinez (% 91) edo bizikletaz (% 8,3) egiten dira. Joan-etorri motordunen % 64 pribatuak dira (% 79,6 norberaren autoan edo partekatuan, % 14 mtoa eta % 1,3 taxian).

- Apustu sendoa egin da kalitateagatik eta hiribus-sarearen jasangarritasunagatik, hiriko funtsezko garraiobidea, positiboki balioetsita, autobusa izanez. Nabarmen egin zuen gora 2011. urtera arte, eta hurrengo urteetan behera egin zuen eta azken urte hauetan berriro gora egiten hasi den arte.
- Joan-etorriak egiteko gero eta gehiago ari da bizikleta erabiltzen eta bidegorrien sarea modu iraunkorrean ari da gehitzen.
- Ibilgailu pribatuaren aurrean, ordezkoko mugikortasun-sareak funtsezko alderditzat jotzen dira mugikortasun iraunkorra sustatzeko; ildo horretan, biztanleriaren %75a baino gehiagok aldibereko estaldura du 3 saretik gutxienez 2 sarerako (trena, autobusa eta “*bidegorria*”), 300-500 metroko distantzian edo distantzia txikiagoan (garraio-motaren arabera), nahiz eta auzoka ezberdin izan.
- Donostiako hiriguneko “istripu-tasak” bilakaera gorabeheratsua du erregistratutako trafiko-istripuen kopuruaren aldetik, eta ezbehar-tasa apur bat igo egin da azken 15 urteetan.
- Donostiaren nazioartekotze prozesua adierazgarria izan da azken urteotan, baina sakon-sakon aztertu beharko da prozesu hori, hirirako estrategia komuna eta ondo bideratua formulatzeko, betiere transmititu nahi dugun hiri ereduarekin lotuta. Estrategia hori erakunde eta sektore (publikoekin zein pribatuekin) elkarlanean prestatu beharko da, hiria nazioartean nola aurkeztuko den optimizatzerara begira.

3.- MUNDU-MAILAKO JOERA SOZIOEKONOMIKOEN ANALISIA

I- MEGAJOERA NAGUSIAK

- Aldaketa demografikoak
- Aldaketa teknologikoak
- Klima-aldaketa
- Globalizazioa eta aldaketa geopolitikoak

II- JOERA SEKTORIALAK

- Aldaketak gizartean eta bere balioetan
- Ekonomia- eta enpresa-aldaketak
- Aldaketak mugikortasunean eta garraioan
- Aldaketak gobernamentu publikoan eta lidergo motetan
- Aldaketak lurraldean eta hirian

LABURPEN-KOADROA

GIZARTEA	JOERAK
Zahartze prozesua	<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate-sistemen gaineko goranzko presioa • Lanerako adinean pertsona gutxiago • Arriskuaren eta aldaketaren aurkakoa, berrikuntza gutxiago • Zilarrezko ekonomiaren aukerak
Geldialdia/Klase ertainaren krisia	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta-mailaren galera • "Kalteberatasun" soziala gehitzea • Laneko segurtasunik eza, zalantza ekonomikoa • Ongizate-sistemaren iraunkortasun zaila
Gizarte-desberdinkerien gorakada	<ul style="list-style-type: none"> • Baztertzeko edo marjinatezko modu berriak • Arrisku sozialak, ekonomikoak eta politikoak • Brecha digital

Migrazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Etorrin gehiago • Gizarte-zerbitzuen gaineko presioa • Erreakzio sozial negatiboen arriskua • Biztanleria aktiboa gehitzea
Genero-berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-arrailearen murrizketa • Bizitza-estiloen eta estilo kulturalen aldaketak • Emakume gehiago biztanleria aktiboan
Bakanakoaren lehentasuna kolektiboa denaren aurrean	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa sozialak sakontzea • Ahultze sozialaren arriskua

EKONOMIA ETA ENPRESA	JOERAK
Aldaketa teknologikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia digitalak • Energiaren eta ingurumenaren teknologiak • Material aurreratuak eta manufaktura-teknologiak • Bioteknologiak
Elkarlaneko kontsumoa eta “platform economy”	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuen eskaera produktuen aurrean • Negozio-aukera berriak • Produktu pertsonalizatuak • Produktu arduratsuak, km 0, hurbileko merkataritza
Enpresen ingurugonearen konplexitasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Egokitzeko premia • Negozio-ereduak berriz asmatzea • Malgutasuna
Sektore eta jarduera berriak	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumena eta Energia berriztagarriak • Elektromugikortasuna • Material aurreratuak • IKTBeak eta informazio-zerbitzuak • Teknologia altuko eta ikerketa eta garapeneko zerbitzuak (I + G). • Bioteknologia • Kultura, kirolak eta entretenimendua; Gastronomía eta turismoa

<p>Okupazio eta enplegu-modu berriak, etengabeko prestakuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza handiagoaren eskaera; etengabeko prestakuntza • Lan-harreman berriak eta enpresa-eredu berriak • Kualifikazioen eskaintzaren eta eskariaren arteko arraila • Talentua erakartzea/talentuari eustea • Belaunaldi-dibertsitatea; adinaren kudeaketa
--	--

KLIMA ALDAKETA	JOERAK
<p>Trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Batez besteko tenperaturaren igoera • Aurkako fenomenoak (itsasoan maila, hondamendiak,...) • Biztanleriaren joan-etorriak • Baliabide naturalen gaineko presioa

MUGIKORTASUNA GARRAIOA ETA	JOERAK
<p>Erabateko aldaketak eta iraunkortasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailu autonomoak • Automobil pribatuaren erabilera txikiagoa • Iraunkortasun-zerbitzuak • E-mugikortasuna • Intermodalitate irtenbideak • Beharrezko azpiegiturak

LURRALDEA ETA HIRIA	JOERAK
<p>Hirien garrantzi gero eta handiagoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiriko biztanleria gehiago • Nortasun historikoa eta kulturala • Hiriko ikuspegia • Itunak eta hirien sareak
<p>Hiri-oreka</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Auzoetako zerbitzuak eta hornidurak • Talde espezifikoekiko arreta

Hiria, Smart gunea (5.0 Gizartea)

- Informazioaren erabilera eraginkorra
- Hiri-dimentsioen multzoa
- Udal-administrazioen modernizazioa
- Bizi-kalitaterako zerbitzuak

GOBERNANTZA

JOERAK

Gobernantza-eredu berriak

- Herritarren ahalduntzea
- Erantzukizuna eta gardentasuna
- Parte hartzeko bideak
- Garapenerako lankidetzak publiko-pribatuak
- Maila anitzeko gobernantza
- Geometria aldakorreko itunak
- Konplexutasuna / zalantza kudeatzea

4. AMIA ANALISIA

INDAR-GUNEA

GIZARTEA-PERTSONAK

- **Bizi-kalitate** ona oro har (adierazle objektiboak eta hautematea); alderdi honek erakarpen-motor gisa jarduten du
- **Gizarte kohesio** altua (gizarte-desberdintasunen maila baxuagoa da beste hiri eta lurraldeekin alderatuz; oso barneratuak dauden elementu kulturalak eta hiri-nortasuna
- **Gatazka nabarmen eza** biztanleria **etorkinaren gizarteratzean**, presentzia erlatiboki baxuago batengatik mesedetua, hazten egon arren.
- **Prestakuntza maila altua** eta alde zuzeneko eskola uzte baxua duen hiritartasuna.
- **Kultur- eta kirol-interes altua** duen hiria, eskaintza eta parte hartze zabala mota honetako jardueretan.
- **Prestakuntza eskaintza** zabala eta anitza (lau unibertsitate, mota guztietako hezkuntza-zentroak, ikaskuntza jarraitua, etab.).
- **Hirian euskararen jakintza** hobetu egiten da orokorrean, eta prestakuntzaren esparruan zehazki (nortasunaren indartzea, ondarea, kultura, sorkuntza, etab.)
- Hobekuntza **asoziazionismo hiritarraren** mailan (jarduera sozialak, kulturalak, ingurugirokoak, etab.)
- **Berdintasun-adierazle**etan hobetzen doan hiria, aurrerapausoa motela bada ere eta falta den bidea luzea izan arren (adibidez, kolektibo anitzei dagokienez, LGTBI, etab.).
- **Gizarte azpiegitura** eta gizarte-kohesiorako **udal-politiken** zuzkidura egokia.

JARDUERA EKONOMIKOA ETA EZAGUTZA

- **Enpresentzako zerbitzu aurreratuen** presentzia indartsua duen hiria.
- **Eskualdeko BEGaren zati nagusi bat** bereganatzen duen hiria
- Azpimarragarria den jakintzaren eta **unibertsitateen polo** bat duen hiria (4 unibertsitate), hiri adimentsu batentzako ezinbesteko zutabea dena.
- **Tokiko berrikuntza ekosistema** oso bereizgarria da

- **Jakintzaren, zientziaren eta teknologiaren esparruan erreferentzia gisa aurrera** doan hiria (RIS3an barneratuak dauden sektoreetan) eta nazioartean aintzatespena du esparru zehatzetan (DIPC, Teknologia parkea, etab.)
- **Hiriak gastronomiari lotuta** duen bereizgarria aintzatetsia da **nazioartean** eta goi mailako eskaintza turistikoa duen eremu baten irudia erakusten du kanpora begira (BCC, alojamentua, ostalaritza, etab.)
- **Kulturaren eta sorkuntza-jakintzagaien** esparruetan indar-guneak dituen hiria (Musikene, Zinemaldia, Tabakalera, etab.)
- **Hiriaren erakargarritasuna** (bizi-kalitatea, zerbitzuak, kultur-eskaintza, etab.) prestatutako profesionalak erakartzeko (talentua)

LURRALDEA (HIRIGINTZA, MUGIKORTASUNA, ENERGIA ETA INGURUNEA)

- **Ingurune naturala**, kokapen geografikoa eta paisaia
- Hirigintza-kalitate maila altua (**hiriko diseinua, ekipamendua, zerbitzuak, jarduerak, etab.**)
- Kalitatezko inguruneak jarduera ekonomikoarentzako (poligonoak eta enpresa-parkeak), hobetzeko esparruan badiren arren (27 Poligonoa, adibidez)
- **Mugikortasun jasangarriari** bideratutako politikak (peatonalizazioa, bidegorriak, garraio-publiko ona, autobusak, etab.)
- Sentikortasun altua **irisgarritasunari** eta **zerbitzuen zuzkidurari** dagokionez
- **Uraren eta airearen kalitate-maila** onak

GOBERNANTZA

- Udal-administrazioaren **modernizazio prozesuari** bultzada
- **Planifikazio estrategikoaren kultura**, eta hirian ezarritako estrategien **egonkortasuna** eta jarraipena (ingurugiro, kultura, garapen ekonomiko, mugikortasun, berdinkuntza, etab.)
- **Instrumentu propioen** existentzia hiritarren parte-hartzea **bultzatu** eta garatzeko
- Mota askotako **eragileen eta baliabide instituzionalen kontzentrazioa** hirian (lurralde-hiriburua, poloa euskal hirien sisteman)

AUKERAK

GIZARTEA-PERTSONAK

- **Zahartze aktiboa**, jardunbide osasungarrien sustatzea, prebentziozko osasun-politikak (alkohola, etab.), etab. bultzatzeko ekimenak eta **politikak** garatzea
- **Ekonomiaren zaintzen eta zilarrezko ekonomiaren** garapena
- **Hirugarren sektoreari** bultzada, gizarte-kohesiorako eta gizarte zerbitzuen eskaintzarako
- **Generoaren** paradigma edo **ikuspegi** berria, oinarri sozial, familiar, lanekoa, ekonomikoa eta abarrekoak astintzen dituen
- **Balio eta patroi eskuzabal eta kolaboratiboen** indartzea gizartean, eta bereziki gazteriaren artean
- Biztanleria etorkinarentzako **gizarte-bateratze politiken** garapena.

JARDUERA EKONOMIKOA ETA EZAGUTZA

- Bultzada jarraitua **RIS3 sektoreei** (Especializazio Adimentsuaren Estrategia), berrikuntza eta I+G jardueri, etab. Donostia erreferente eta I+G eta zerbitzu aurreratuen zentro bateratzaile bezala.
- Gipuzkoako Lurraldean enpresa garrantzitsuen presentziak hiriarentzako zerbitzu aurreratuen sektorea garatzeko aukera irekitzen du eta **enpresa hauen egoitza eskuratzea**.
- Zahartze prozesuari lotutako **giza kapitalaz** baliatzea, ezaguera, esperientzia, denbora, etab. duena
- Laneratzearen hobekuntza, hezkuntza-sistemaren eta enpresa-ehunaren arteko lotura handiago batekin elkartua (**sistema duala indartzea LHn eta Unibertsitatean**)
- **Immigrazioa** tokiko biztanleria aktiboaren beherakadak estaltzeko aukera bezala; erakartzeko **politika aktiboak**
- **Digitalizazioa** (data analytics, big data, etab.) enpleguarentzako aukera-esparru bat bezala (zerbitzu, kultura, industria, zaintzen, eta abarren sektorea), lanpostu berriak sortuz, prestakuntzari dagokionez hazkorrak diren baldintzak dituzten profil berriak
- Aukera hiriaren **zerbitzu aurreratuen egitura** hobetu barneratu eta **lotzeko** eskualdeko eta lurraldeko industriarekin
- **Eskuragarri dagoen zoruaz baliatzeko** aukera (Eskuzaitzeta Poligonoa bezala) jarduera berriak erakartzeko

- **Talentua erakartzeko** aukera hiriak hiriko ekosisteman neurriak garatu eta indartzen baditu (etxebizitza, hezkuntza, osasuna, etab.)
- Hiriaren **merkataritzaren eraberritzea bultzatzeko** aukerak, sektorea arautzen duten parametro berrien arabera
- Aukera **ezagutzaren transmisio** eta enpresetan belaunaldi aldaketarako **ekimenak** erraztu eta sostengatzeko
- Elkarlan **ekonomiko-enpresariala** eta **mugaz gaindikoa edota euroeskualdekoa** aukera bezala

LURRALDEA (HIRIGINTZA, MUGIKORTASUNA, ENERGIA ETA INGURUNEA)

- **Hiriaren erdialdean espazioak berreskuratzeko** politika (eraikitako hiria)
- **Ekonomia zirkularraren** garapenerako aukera
- Hiria eraikitzeo forma berriak azaltzea (**diseinua, berrikuntza hiritarra**)
- Bultzada **tokiko lehen sektoreari** (km0 produktuak, tokiko kontsumoa, etab.)
- **Mugikortasun jasangarria** irmo bultzatzen jarraitu (elektromugikortasuna, MUBIL, etab.)
- Aurreikusitako hobekuntzak edota inbertsioak **tokiaz haratagoko mugikortasun** sistema eta azpiegituretan (trenbideak, etab.)
- Donosti **living lab**: gizarte-berrikuntza ekosistema ireki bat bultzatzea, hiritargoan ardaztua, ikerketa eta berrikuntza prozesuak bateratuz, elkarlan publiko-pribatuko marko batean.
- Udal politika guztiak **Garapen Jasangarriko** Helburuetara orientatzea
- **Etxebizitzaren zaharberritze eta hobekuntza energetikorako** politikak
- Karbonoa deuseztatzeko eta **energia berriztagarrien** politikak
- **Globalizazioa** mehatxu gisa: urruntze arriskua eta konektagarritasun galera ardatz eta sare geoestrategiko eta ekonomiko handiekin (Europa posizio politikoa, ekonomikoa, etab. galtzen ari da munduko testuinguruan, Amerika-AEB eta Asia-Txina, India eta abarrekiko).

GOBERNANTZA

- Hiriei emandako **garrantzia altuagoa** (Europatik, etab.), hazkunde ekonomikoaren motor gisa eta politiken garapenerako agente bezala (Hiriko Agenda, Garapen Jasangarria, etab.)
- Elkarlanen, **aliantzen eta sareen sorkuntza-dinamika** gorakorra (agenteen, hirien, eta abarren artean). Geometria aldakorreko gobernantza partekatua

- Konurbazioaren **kudeaketa-metropolarrean** aurrera egitea. Donostia Gipuzkoaren Hiriburua
- Mugaz gaindiko elkarlanean sakondu (Eurohiria, Euroeskualdea)
- Bultzada koordinatua hiriaren **nazioarteko proiektzio eta irudiari**
- Espezializazio adimenduneko, inguruneko (ODS, klima, etab.), zahartzea, etab. bezalako **estrategien bat etortzea** edota lerrokatzea tokiaren gainetik dauden instituzioekin (Eusko Jaurlaritza, Aldundia)
- **Funtzio Publikoaren eredu tradizionalaren aldaketa** (udal administrazioa tokiko garapenaren bultzadari eta hiritartasunari zerbitzuen eskaintzari fokotua), Udalean ezartzen hasi dena.

AHULTASUNAK

GIZARTEA-PERTSONAK

- Biztanleria egonkortua eta jaiotzen datuak behera, emaitza gisa **zahartzen doan gizartea** izanik.
- **Gazteen emantzipaziorako zailtasunak** (lan-aukeren gabezia, etxebizitzaren garestitzea, etab.)
- Atzeraldi ekonomiak **krisian** jarri du **ongizate estatua** eta beste gizarte-oreka tradizionalak (gizarte-klaseen, belaunaldien, eta abarren artean).
- **Hiri garestia**, biztanleriaren zati nabarmen bati zailtasun ekonomiko eta finantzarioak planteatzen dizkionak
- **Euskararen** ezagutzak bere erabilera hobetu badu ere, ez du ibilbide berdina jarraitu, baizik eta egonkortua mantentzen da.
- Desberdintasuna eta **desoreka sozioekonomikoak auzoen arabera**, errentan, langabezian, zahartzean, bizitasunean, etab. Gizarte-arrakalaren hazkundera.
- **Zatikitze asoziatiboa**: tamaina txikiko elkarte asko, modu koordinatuan aritzen ez direna. Elkarleen sektorea antolatzeke eta indartzeko beharra (auzoetan hasiak dira plataformen sorkuntzan lanean elkarrekin batu ditzaten).
- **Gazteria azpiordezkatua dago** erabakiak hartzeko foro politiko eta ekonomikoetan.

JARDUERA EKONOMIKOA ETA EZAGUTZA

- **ETE** eta mikroETEn kopuru altu batez osatutako **enpresa-ehuna**, eta trakzio-ahalmena duten eragile pribatuen presentzia mugatua, enpresa adierazgarri gutxi

- Donostian soilik gertatzen den fenomeno bat ez bada ere, gure hiriak ere **lan-merkatuaren ezegonkorraren** eraginak ere jasaten ditu, bereziki ostalaritza, zaintza pertsonal, eta abarreko sektoreetan. Gainera, enpleguaren ardatz izaera galtzea, jada ez baita bizitza duin bat lortzeko bermea (langile txiroak).
- **Txikizkako merkataritza deprimitua**, pisua galtzen doana eta eredu berriei aurre egiten ari dena (frankiziak, online, azalera handiak, etab.), zaila izanik eurekin lehiatzea.
- **Ekintzaitza maila baxua** eta sostengu-politiken eraginkortasun baxua (proiektuen iraunkortasuna)
- Hiriko erreferentziazko sektoreei loturiko ikuspegi eta **marka argi baten falta**
- **Talentua erakartzeko** existitzen diren eragile eta esfortzu anitzen arteko **deskoordinazioa**. Gizarte-ekosistema (hezkuntza eskaintza, etxebizitza, osasuna, etab.) eta ekosistema ekonomikoari eragiten dion gai bat bada ere. Enpresei dagokienean aipatu behar da gehienek ez dutela langileria erakartzeko eta atxikitze politikak aktiborik garatu.
- Hiriaren beharrei erantzun dieten profilak dituzten etorkinak **erakartzeko estrategia zehatz baten falta**
- Ehun-produktiboaren beharrak asetzeko **profil profesionalen gabezia** (prestatutako langileria, ingeniariak, robotizazioa, digitalizazioa, etab.). Eskaintza eta eskaria egokitze beharra
- **Digitalizazio maila mugatua** enpresetan eta sektore publikoan
- Lokal garestiak, enpresa berrientzako ezartze-kostu altuak

LURRALDEA (HIRIGINTZA, MUGIKORTASUNA, ENERGIA ETA INGURUNEA)

- Hobetu daitekeen **hiriko irisgarritasuna**, bai kanpoko (konektibitate eta garraio-sisteman akatsak) eta baita barrukoa ere (irisgarritasun unibertsala)
- **Mugikortasunaren** udal/tokiko ikuspegia, **ikus puntu metropolitara** eza (garraio-linea batzuk ezabatu dira, ordutegi murriztea, etab.)
- Interrelazio kaxkarra inguru metropolitanoarekin eta eskualde edota probintzian gidaritza aktibo falta
- Hiriaren eta bere esparru funtzionalaren **portu- eta aireportu-azpiegituren** mugatzea, portuko jardueraren beherakada nabarmenarekin eta, hein txikiago batean, aire-trafiko baxuagoarekin
- Hiriko diseinu arazoak **mugikortasun jasangarriarentzako** (oinezko eta bizikleten edota bizikleta eta autoaren arteko bizikidetzak, etab.)
- Zailtasuna biztanleriaren esparru zabaletan **etxebizitza lortzeko**, batez ere gazteriaren artean
- **Etxebizitza**-parkearen antzinakotasuna, zaharberritze beharrak, **irisgarritasunean** hobekuntzak eta **energia**

- **Energiaren kontsumoan** hazkunde jarraitua, menpekotasun energetikoa, energia berriztagarrien ezartze baxua
- Kutsadura akustiko altua, batez ere trafikoak eragindako zaratarengandik sortua
- Mugikortasunaren eragin altua negutegi efektuko gasen igorpenetan
- Biztanleko sortutako hondakinen murrizketan geldialdia. Desberdintasun handiak frakzioen arabera (adibidez, ehun-frakzioa asko hazten ari da)

GOBERNANTZA

- Administrazio publikoa orokorrean eta, udalekoa zehazki, **burokratizatu** dago. Bete behar diren prozedura kopuru zabala dago, eta ekintzaren arintasuna eta malgutasuna mugatzen dute. Egitura zurrunik.
- **Antzinako kudeaketa eredua.** Digitalizazioa eta prozeduren sinpletzea oso geldo doaz aurrera eta ez dira soilik Udalaren menpekoak (Estatuko eta Europako legediak).
- **Langilerien zahartzea** sektore publikoan (udal berrantolaketa aukerak ireki badaitezkeen arren)
- **Elkarlan publiko-pribatuan zailtasunak.** Erakunde ekintzaren **gainjartzeak** zenbait eremuetan (ekintzailtza, talentua, etab.) eta **hobetu daitezkeen koordinazioa.**

MEHATXUAK

GIZARTEA-PERTSONAK

- **Gizarte-desberdintasunen** pixkanakako **sakontzea**, txirotasunaren eta gizarte-bazterketa kasuen gorakada (legediaren eragin negatiboa, inklusioari onura egiten ez diona)
- **Bateratze eredu argi bat ez duen immigrazio prozesua.** Desorekak euren auzokako finkatzean. Lehen eta bigarren mailako immigranteak sortzeko arriskuak, euren maila sozioekonomiko eta profesionalen arabera.
- Gaur egun tentsioak ez egon arren, pertsona atzerritarren inguruan gizarteak eduki dezaken pertzepzioaren **hondatze-arriskua** dago, hauen kopurua nabarmenki hazi egiten bada
- Gizarte-zerbitzuen beharren gorakada esponentziala (zahartzea, desberdintasunak, immigrazioa, etab.)
- Hiria **ekintzailtza eta berrikuntza** ahalmenak eragin negatiboa jasan dezake biztanleria gaztea murrizten bada.

- Sare sozialen **erabilera okerrarekin loturiko arriskuak**, (informazio betekada eta, maiz, desinformazioa sortzen dutenak; Interneten efektu negatiboak batez ere haur-nerabeetan, etab.)
- **Indibidualismo gorakorra**, balio kolektiboak mehatxatuak. **Profil humanistiko**en balio-sozialaren galera, orientazio teknologikoaren gehiegizko nagusitasun baten aurrean
- **Elkarteen mugimenduaren bulkadaren galera**-arriskua, belaunaldi aldaketaren faltarengatik
- **Berdintasun eta gizarte-bateratze** politiken aurka doazen **mugimendu sozio-politikoak** sartzeko arriskua

JARDUERA EKONOMIKOA ETA EZAGUTZA

- Frustrazio eta “irteteko” **arriskua** oso prestatua dagoen eta euren ikasketa-profilari egokituriko lanpostuak aurkitzen ez dituen gazteriaren artean
- **Potentzialki aktiboa den biztanleriaren murriztea** (erretiroengatik eta biztanleriaren hazkunde ezarengatik)
- **Bikaintasunari**, teknologikoari eta prestakuntza altuari **bideratuta dirudien hiria**, baina ez dituen aukera nahikoak eskaintzen biztanleriaren beste alderdiei
- **Boom turistikoa**, eskaintzan kalitatearen galera-arriskuarekin eta eragin negatiboak bertako biztanleriaren bizi-kalitatean

LURRALDEA (HIRIGINTZA, MUGIKORTASUNA, ENERGIA ETA INGURUNEA)

- **Klima aldaketa** eta honen eraginak (olatu handiak, ibaiko uholdeak, beroaldiak, etab.)
- **Eredu turistiko berriei** lotutako arriskuak eta hauen eragina hiriaren beste esparruetan (adibidez, etxebizitzaren merkatuan)

GOBERNANTZA

- **Lehiakortasun gorakorra** hirien artean, jarduera ekonomikoa, talentua, biztanleria gaztea, etab. erakartzeko.
- Hiriaren eskaintzaren nortasun bereizgarriaren galera (gastronomikoa, kulturala, merkataritza, etab.) eta geroz eta antza handiagoa du beste hirienarekin. **Hiriaren nortasun-seinak indartu edota birsortzeko** beharra
- **Aldaketa sozial, teknologiko, ekonomiko...** azkartasuna eta zailtasunak Udal administrazioa beharrezkoa den arintasunarekin egokitu dadin. Etengabe agertzen dira gizarte-behar berriak eta zaila da horiei aurre egitea berandutu gabe.

- EAEren osotasunean Donostia **atzean geratzeko arriskua** dago, bigarren mailako paper batekin gainontzeko bi hiriburuekin alderatuz (erakunde- eta enpresa nagusien egoitzak, konektagarritasuna, kongresuak, etab.)

